


# TXERRI EGUNA 2023



**ANTOLATZAILEA:** TXERRI EGUN BATZORDEA

**LAGUNTZAILEA:** Oiartzungo Udala

**EGUNA:** 2023ko abenduaren 16a, **larunbata**

**TOKIA:** Oiartzungo Madalensoro pilotalekua eta Elizalde eskolako frontoia.

## Parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak:

Azokaren **ordutegia errespetatu**:

Irekiera ordua eta itxiera ordua oraindik ez dira zehaztu. Aurrerago zehaztuko dizkizuegu, baina nahitaezkoa da horiek errespetatzea.

Parte-hartzaile **bakoitzari mahai bat** jarriko dio antolakuntzak (1,82 m luzera eta 78 zm zabalera duena). Mahaia parte-hartzaileak berak ere ekar dezake, baina zehazturiko neurria errespetatu beharko du. Inork leku handiagoa behar badu, antolatzaileoi jakinarazi beharko digu (fitxa orrian adieraziz) eta antolatzaileok eskaera aztertu eta erantzungo diogu. Erabakia postu motaren eta aukeren arabera hartuko dugu.

Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunearen lana euskararen aldekoa denez eta Txerri Egunaren helburuetako bat kalean euskararen presentzia bultzatzea denez, parte-hartzaile guztiek **jendaurreko txartel guztiak euskaraz** eduki beharko dituzte. Inork bere txartelak, testuak... itzultzeko zaitasunak baditu, guk lagunduko diogu. Horretarako, nahikoa da gurekin harremanetan jartzea eta eskaerak izena emateko epea bukatu baino lehen egitea. Bestalde, **bezeroekin izango duzuen harremana euskaraz** izatea ziurtatu behar duzue. Horretarako saltzaileetako batek behintzat euskaraz jakin behar du.

Izena emateko **epea azaroaren 1ean hasiko** da **azaroaren 5ean amaitu (biak barne)**.

Izena emateko, parte-hartzaile guztiek **nahitaez baldintza hauek onartu eta inprimakia bete behar dute**.

**Baldintzetako bat betetzen ez bada antolatzaileek postua ken dezakete eta datozen urteetarako baimena kendu.**